



IXILIK DAGO BASOA

(Foto y texto de «PAKOL»).

IXILIK DAGO BASOA

Bai, ixilik dago gaur basoa;
Jantzi du neguko zapi zuri otza
Eta eldu zaio aldi baterako eriotza.
Gelditu dala esan liteke ludi osoa.

Baserria illun, ollarrik ez atean;
Abereak berriz, ukulluan danak.
Nekazariak jo ditu etxe barrengo lanak
Golde, atxur ta solo tresnak utzirik pakean.

Ez dago inor or goiko zelaietan;
Ez artzai txistu, ez txakur zaunkarik
Ez eta ere da artaldearen zintxarririk.
Ixilik dago basoa benetan!

Elur bigunean oinkadak nekez
Sartu naiz basoaren biotzean;
Bitxi zuriak zugaitzean
Baño bere buruan ostorik ez.

Nun udarako txori abeslari
Alai zebiltzanak adarrik adar,
Kuku, urretxindor eta abar?
Aldendu ziran aspaldi, igesi neguari.

Orlegui gabe, beren besoak igar,
Tantaick tinko zugatzartean;
Gau ta egun onelako bakardadean
Nola ez dezute egiten negar?

«Itxaropena degu guk pozgarri
—izan zan pago baten erantzuna
(edo ote zan nere biotzaren oiartzuna?)
Oraindaño, nequak udaberria du ekarri».

Noiz berotuko gure eguzki jaso?
Noiz izango zuretzat udaberri
Otzak dardart zaukaten !ene Euskalerril
Bitartean... ixilik dago basoa!